

EUSKARA Y CORPUS-PLANNING. LA LABOR DE
EUSKALTZAINDIA (1918-2013)

EUSKARA ETA CORPUS PLANNING:
EUSKALTZAINDIAREN LANA (1918-2013)

L'EUSKARA ET LE CORPUS-PLANNING: LE TRAVAIL
DE EUSKALTZAINDIA (1918-2013)

BASQUE LANGUAGE AND CORPUS-PLANNING: THE
WORK OF THE BASQUE LANGUAGE'S ROYAL
ACADEMY (1918-2013)

Andres Urrutia
Euskaltzaindia

0. Eskerrak.

Antolatzaileei, Euskararen Akademiari ekitaldi honetan parte hartzea eskaintzearren eta, esan gabe doa, Euskaltzaindiaren zeregina aitortzearren.

1. Atarikoa

Euskaltzaindiaren sorreratik berbertatik, *Iker* eta *Jagon* sailak deitu ziren hasierako euskaltzainek zehaztu zituzten alorrak. Lehenak, euskararen hizkuntza arauak zituen helburu; bigarrenak, aldiz, euskararen gizarte-erabilera zekarren bere baitan.

Egun, horretan diraute bitzuok. Egia da, bestalde, egun ere, zeregin horietan badutela bidaide eta ardura kide, baina kezkak bere horretan dirau: *Iker/Jagon, corpora/estatusa*, paraleloan doaz eta bata bestearen zordun eta hartzekodun dira, besteak beste, biak baitira hizkuntza beraren isla desberdinak, kristal beraren kaleidoskopioa.

2. Historiaren haria: hizkuntzaren corpora eta euskararen batasuna.

Luze joango litzateke euskararen corpusak izan dituen gorabeherak zerrendaraztea. Aztertutak izan dira, gaingiroki bada ere, haren nondik norakoak.

Hitz batez esateko, euskararen corpora identifikatu egin da, gure artean, euskararen batasunarekin, alegia, euskarak behar zuen molde

bakar horrekin, bizirik iraun behar bazuen XX.
mendeko bizimoduan.

2.1. Euskaltzaindiaren sorrera

Hondarribiko Biltzarra (1900-1901) izan zen lehen emanaldia, Euskal Herri osoko , Ipar zein Hegoko ordezkariak batu nahi izan zituen horren inguruan. Hark porrota ekarri bazuen ere, han bertan mamitu ziren ideia batzuk, gerora erabakigarriak izango zirenak.

Hura alde batera utzita, argi dago giro horren fruitua dela Hizkuntza Akademia baten premia eta beharra, Oñatiko Biltzarrean, Eusko Ikaskuntza sortzearekin batera, argia ikusi zuena 1918-1919 urtean.

Villasanteren hitzekin esateko:

Luze eztabaidatu zen Oñatin ez ote ziren, baten ordezkari bi Erakunde sortu behar: bata euskara ikertzeko eta bestea zaintzeko (ezen ikertzaile hutsak ez omen dira euskararen biziaz axolatzen, eta, bestalde, euskararen biziaz kezkatzen direnek ikerketaz axola guti omen dute). Azkenean erabaki zen Erakunde bat bakarra sortzea, baina bi sailez osatua: Iker saila eta Jagon saila. Erakunde honen Arautegia (Estatutuak) ere Eusko Ikaskuntzak egin arazi zituen. (Villasante 1988: 131).

Urte luzetan aritu zen akademia bere lanetan euskararen batasuna lortu nahian eta Azkueren eraginez “gipuzkera osotua”(1935) ere formulatu.

Honetara idatzi zuen berak:

Gure euskera zar oni, aintzinako izkera guziaz bezela, umetsua izateak beronen bizitzea erraz erkintzen dio. Bakarra izan balitz, euskaldun geienok ezkenduke adiskide-artean erderara yo

behar izango. Ezin bakartu dezakegu, batu bai. Beredin izkelki motaren gainean (Italian eta Alemanian eta Frantzian eta Inglaterran eta Iurbira zabaleko Erri andi geyenetan bezela) oso ta non-nai zabaltzeko indardun bizi izango litzate, bat egitea eskuratu ezker. Gipuzkoako izkelkia dugu onetarako gaiena. Beronen gainean izkera batu liteke, bazterretako izkelkien gainean ez, erraz beintzat. (Azkue 1935:III)

Bide beretik etorri ziren beste euskaltzain askoren ahaleginak: Altube, Eguzkitza, Elizalde ...

Gerrak, nolanahi ere, nahasi eta eten egin zuen ahalegin hura eta bertan behera utzi.

Hiru ezaugarri nagusi ekarri zituen, hala ere, harako hark:

- a) Euskararen batasuna, euskalkien artekoa, nahitaezkoa zen euskararen biziraupenerako.
- b) Batasun horrek berez zekartzan euskalkien arteko aukera morfosintaktikoak. Azkuek, esaterako, gipuzkera ederretsi zuen, beste batzuek, aldiz, osterantzeko irtenbideak.
- c) Batasunaren subjektua, nolanahi ere, Akademia zen, euskalki guztien eta euskalgintza osoaren ordezkaritza zabala zuena.

2.2. Gerra osteko aldi luzea (1968arte)/Arantzatzuko Biltzarra

Euskararen bizimodua ez zen erraza izan gerra osteko garaian, ez eta Euskaltzaindiarena ere. Villasanteren iritziz, 1950. urtean hasi zen Euskaltzaindia berriro ere arazo horri ekiten, hots, euskararen batasunari buruzko gaiak jorratzen, Krutwig-en eskutik. Horretarako proposatu zuen

hark Iparraldeko euskara oinarri hartzea. Haren eta aurrekoen proposamenen on-gaitzak ikusita, badira ekimen batzuk (Oskillaso, Baionako Euskal Idazkuntza, Aresti, Mirande, Txillardegi, Irigoien, Jakin, Gure Herria...), Euskaltzaindiaren lanari sarrera emango diotenak.

Berriz ere Villasanteren hitzak aipatuko ditut:

Kezka hau aintzat hartuz, Euskaltzaindia euskara batu horren arazoan gidaritza hartzera jarriko da. Izan ere bada orain giro bat eta badira indar batzuk lehen ez zirenak. Hori da Mitxelenak «indar biologikoak» aipatzearekin esan nahi zuena. Izan ere, alferrik da batasunerako aurre-asmo edo plan bat egitea, gero asmo hori praktikara eramateko ez girorik, ez biderik, ez indarrik ez baldin bada. Hori gertatu zen, neurri handi batean, Euskaltzaindiaren lehen urteetako batasun-asmoekin.

Baina orain beste giro bat eta beste indar batzuk somatzen ziren. Eta eskabideari erantzuna eman behar zitzaiola uste izan zuen Euskaltzaindiak. Izan ere, bere Sortarauetan agintzen zena egin gabe zeukan oraindik.

1968. urtean Euskaltzaindiak bere urrezko eztaiak ospatu zituen. Hori dela eta, Arestik eskatu zuen batasunaren auzia erabakitzeko, Biltzar bat, berariaz gai honi eskainia, egin zezala. Euskaltzaindiaren aginduz txostenak eskatu ziren, baina Mitxelenari egotzi zitzaion batasunaren aurre-asmo orokor bat taxutzeko agindua.

Guztiok dakiten bezala, Biltzar hura Arantzazun egin zen. Eztabaida zaratatsuak egon ziren, batez ere ortografian H onartzeari buruz. Euskaltzaindiak erabaki zuen begi onez ikusiko

zuela letra honi euskal ortografia arruntean sarrera ematea. (Villasante 1988: 117).

Hamar urte geroago, Bergaran (1978), Euskaltzaindiak berretsi egin zuen Arantzazun hartutako bidea (Villasante 1988: 115-116).

Harik laburrera, euskara ofiziala zen (1978) eta Euskaltzaindia, 1976. urteaz geroz, horren gaineko erakunde aholku-emaile ofiziala. Hori adierazten zuten, besteak beste:

Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 3/1979
abenduak 18, Lege Organikoak:

6. Atala

*4. Euskarari dagozkionetan, Euskaltzaindia
izango da erakunde aholku-emaile.*

Nafarroako Foru Erkidegoak 18/1986 Foru
Legeak, Abenduaren 14ekoa, Euskarari
buruzkoak:

3.artikulua

*3. Hizkuntza arauak ezartzeko ondorioetarako,
Euskaltzaindia izanen da erakunde aholku-emaile
ofiziala, eta berari eskatuko dizkiote botere
publikoek aurreko idazatian ezarritako betetzeko
beharrezko zaizkien txosten eta diktamenak*

Hortaz, bigarren garai honetan ezaugarri batzuk
nabarmentzen dira.

- a) Euskararen batasuna, euskalkien artekoa,
nahitaezkoa ikusten da euskararen
biziraupenerako, euskara bera debekatuta
eta kolokan baitago. Asmo hori belaunaldi
euskaldun gazteek bere egiten dute, orduko
giroaren arabera, eta nortasun propio baten
seinale.
- b) Batasun horrek dakar, euskararen aldetik,
apustu jakina, euskalkien arteko osagai
desberdinak hartzeko, euskara “batua”
deituko denaren peskizan. Hiru alor nagusi
daude jokoan: ortografia, hiztegia eta
gramatika, hau da, bestelako hizkuntzekin
(katalana) gertatu den bezala, zin-zinezko

corpus planning batean hasten da euskararen esparrua.

- c) Batasunaren subjektua Akademia da, euskalki guztien eta euskalgintzaren ordezkari zabaldua.

2.3. Arantzazuko biltzarretik hona (1968-2010).

2.3.1. Diagnostiko orokorra

Horra, beharbada, testu honi egokien doakiona, batez ere, tituluaren aldetik.

Izan ere, nola ikus dezakegu egun, orain arte azaldu ditugun hiru aldaera hauek, alegia, euskararen biziraupena, euskararen batasuna eta akademiaren zeregina, berrogei urte joan direnean batasunaren formulaziotik?

Nik neuk, behintzat, argi izan ditut aspalditik oraingo egoera hori laburbiltzen duten hitzak, duela hamar urte baino gehiago esanak:

Horren bitartez, ezari-ezarian hasi dira eztabaidatzen eta zabaltzen hizkuntzaren inguruko bestelako dinamikak. Dinamika horiek eraman gaituzte, besteak beste, euskara batua/euskalkiak bikote horren aldamenean, bestelako tirabirak ere plazaratzera, alegia, hizkera arrunta/hizkera berezituak gogorarazten diguten dema bizi horietara. Bertan ikusten dut nik, buruen-buruenik, MIKEL ZARATE zenak Labayru Ikastegiaren ikasturte haietan erakutsia. Dakigunetik ez dakigunera idatzi zuen hark, bizkaitarrok baturako bidean egin behar genuen prestatze lana izendatzeko. Dakigunetik ez dakigunera hori egun ere erabilgarri gerta

dakiguke, aurretik eta ahots desberdinetatik datorkiguna biltzen jakiteko eta etorkizunerako osagai baliagarriak bihurtzeko.

Bidegintza horretan, horra hor, duela urte gutxi sinestezina zena, gorputz egina, mamitsu bezain sendoa, agindu eta intziri berrien iturburua. Esparru berri horiek euskararentzat zer ekarri, eta horretan gabiltza une honetan, aurrera egiteko eginahaletan.

Horren frogak edonon hauteman daitezke. Terminologia zentroek, administrazioek, komunikabideek unibertsitateek ... etengabe dihardute langintza horretan, euskara emaitza berrietan moldatu nahian (Urrutia 1998:37-38).

Bi ardatz nagusi, beraz, egungo euskararen batasunean, edota hala nahi bada, euskararen corpus horren zereginak zehazterakoan. Lehena, euskara batua/euskalkiak eta bigarrena hizkera arrunta/hizkera bereziak.

2.3.2. Hizkuntza estandarra, corpus planning teoriaren arabera

Zilegi bekit, alabaina, aurrera jarraitu aurretik, *excursus* bat egitea, eta soziolinguistikaren teoria aintzat hartuta, orain arte euskararen baitan egin dena ikertzea, zertan asmatu den eta zertan ez, deskribatu ahal izateko.

Haugen (1983) norvegiarrak lau fase desberdin bereizi zituen hizkuntzaren plangintzan. Horietariko bi gizarteari, hots, hizkuntzaren erabilerari dagozkio eta beste biak, berriz, hizkuntza egiturari, hau da, hizkuntzaren corpusari.

Hainbatez, honela esaten zuen hark:

...In what I may call its “classic” form the fourfold model includes (1) selection of norm; (2) codification of norm; (3) implementation of function; and (4) elaboration of function. Numbers (1) and (2) deal with the norm, (3) and (4) with the function. On the other hand, numbers (1) and (3) are primarily societal, hence external to the language, while (2) and (4) are primarily linguistic, hence internal to the language:

	<i>Norm</i>	<i>Function</i>
<i>Society implementation</i>	<i>(1) selection</i>	<i>(3)</i>
<i>Language elaboration</i>	<i>(2) codification</i>	<i>(4)</i>

(Haugen 1983: 269-270).

2.3.2.1. Hautaketa, hau da, hizkuntzaren aldaera baten alde egitea. Euskararen kasuan, hautua izan zen estandar bat egitea, euskalki desberdinetan ziren osagaiak bertakotuz. Holakoa egin zuen Euskaltzaindiak gizartean ziren ekimenei kasu eginez.

2.3.2.2. Kodeketa. Bertaratzen ditu hiru prozesu:

- a. Grafiarena, edo arau ortografikoak ezartzea (oinarrizkoena).
- b. Gramatika lantzea, hau da, morfologia eta erregela sintaktikoak.
- c. Hiztegitzea, hau da, euskara batuaren hiztegia finkatzea.

2.3.2.3 Inplementazioa, hau da, estandar berriaren zabalkundea gizarte osoan eta batez ere, maila formalean. Prozesu honetan garrantzia dute botere politikoaren parte hartzeak eta orobat, gizartearen ekarpenak. Horiek dira, besteak beste, estandarizazioaren proposamenak, erabileraren erabileraz, zuzendu ditzaketenak.

2.3.2.4. Elaborazioa. Horrek eskatzen du

hizkuntzaren garatzea, hau da, hizkuntzak dituen baliabide linguistikoen etengabeko eguneratze, aberaste eta espezializatzea.

Bide beretik, eta Bibilonik esandakoaren aldetik:

Una llengua estàndard és el resultat final de tot aquest procés i les seves propietats són les resultants de cada una de les etapes: unitat formal, completeness i diferenciació estilística. Més encara: una llengua estàndard, a diferència d'una llengua simplement codificada o normativitzada, és una varietat que, a més de tenir les propietats esmentades, té un ús efectiu dins una societat, és acceptada per la comunitat de parlants i fa les funcions que hem descrit en un apartat anterior. (Bibiloni 2004:37-38)

2.3.3. Euskararen batasuna, corpus planning delakoaren arabera.

2.3.3.1. Hautaketa. Begien bistakoa da, euskararentzat aukeratu zen eredua konposizionala izan zela, hau da, euskalkien artekoa, bakoitzetik hartuz, eta, ahal dela, diasistematikotasuna landuz, alegia, hizkuntzaren egiturarik zabalenak hobetsiz.

Model composicional (*dit també compositiu*). *Es construeix un estàndard unitari, però no sobre un sol dialecte, sinó a partir d'aportacions de tots, encara que un d'ells pot tenir més pes que els altres. És el cas d'algunes estandarditzacions modernes, com la de l'euskara batua (basc unificat), que no s'identifica amb cap dels dialectes preexistents.*

sinó que apareix com una síntesi de tots. Aquest model d'estandardització reclama una codificació que treballi a fons amb el criteri de *diasistematicitat* (vegeu més endavant aquest concepte), és a dir que seleccioni les formes més representatives del sistema global; i és important la noció de *transdialectalització*, és a dir, el fet que les opcions adoptades per a l'estàndard, si són pròpies d'una part de la comunitat lingüística, siguin difoses i emprades a la resta de la comunitat. I és necessari, per descomptat, que la transdialectalització tingui un caràcter multidireccional, no l'unilateral propi dels models unitaristes. El model composicional porta a un estàndard inicialment *artificiós*, i això pot comportar algunes dificultats en la socialització, per tal com no és la varietat nativa de ningú; però això mateix també representa uns avantatges, en tant que permet que els parlants de *totes les àrees lingüístiques se sentin implicats en un procés més igualitari i democràtic*. (Bibiloni 2004: 40-41).

Hautaketa horrek, egun, gehienon berrespena hartu du eta Euskaltzaindiak egin zuen eta egiten diharduen ahalegina ontzat ematen da, gizartearen gehiengo zabal baten aldetik; euskara ofiziala denetik gainera, hautaketa hori legeek ere berretsi dute.

Besterik da, dudarik gabe, dialektologia lantzea, Euskaltzaindiak bere EHHA egitasmoarekin egin duen bezalaxe, edota euskara batua/euskalkiak noiz erabili behar diren gomendatzea, Lezaman (2004 Euskaltzaindiaren 137.araua) egin zuen bezala, hizkuntza erregistroak aintzat hartuz.

2.3.3.2. Kodeketa

Modurik tradizionalen esateko, hauexek dira horren esparruak:

- *Ortografia*. Oinarrizko ahalegina egin da. Falta dira, oraindik ere, erabaki batzuk, hala nola *letra larri/ letra xehe*, *v/b*, *x/s*-ren artekoak, batez ere, kulturako hitzetan.

- *Sintaxia*. Eginak dira Gramatika batzordearen aldetik EGLU direlakoak eta pausoak eman beharko dira, hurrengo urteetan, zin-zinezko gramatika arauemailea gauzatzeko.

- *Morfologia*. Eginak dira, neurri batean, deklinabidea eta hitzen konposaketa, atzizkiak eta aurrizkiak. Falta da, hala ere, *LEF* (Lexiko egituren finkapena) batzordearen lana osatzea.

- *Hiztegia*. Hiztegi Batua etengabe aberasten ari da. Erritmoa ere bizkortu du, bi batzorde ahaldunduren bidez, Euskaltzaindiak egun Hiztegi Batuaren 3. argitaraldi elektronikoa erabiltzaileen eskura dago. Horrek bildu ditu 43.009 forma arautuak. Bestetik ere, historian lehendabizikoz, Hiztegi Batuaren lehen itzuliko hitz-sarrera eta azpisarreraren adierak eta adibideak euskaraz eman dira, *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* bidez. Batez beste, 26.000 forma inguru. Bi emaitza desberdinak, hortaz, hiztegi batuaren plangintzan, *Hiztegi Batua* eta *Euskaltzaindiaren Hiztegia*, *adierak eta adibideak*. Horrekin batera ere, corpusak landu ditu Euskaltzaindiak eta *Orotariko euskal Hiztegia*, hau da, euskararen corpus historikoarekin batera, ari da lantzen neoinimia, *Lexiko Behatokiaren* corpusaren bidez.

- *Onomastika/Exonimia*. Euskaltzaindiaren araugintza bete-betean ari da, une honetan, eta horrela jarraitu beharko du hurrengo urteetan.

- *Fonetika/Fonologia*. Arauk batzuk onetsi badira ere, oraindik eginkizun daude hainbat arlo.
- *Kodeketaren zabalkundea*. Buru belarri ari da Euskaltzaindia alor horretan eta egun bi baliabide desberdin darabiltza: a) *Euskera* agerkaria; b) webgunea: *www.euskaltzaindia.net*.

2.3.3.3. Inplementazioa. Euskara batua, egun, ofiziala da eta bere sarrera ukaezina gizartearen hainbat alorretan, batik bat, administrazio publikoan, irakaskuntzan, komunikabideetan, arlo sozioekonomikoan... oro har, gizartean duen presentzia nabarmena da, eta inplementazio hori ezinbestekoa da euskara bera osora eramateko.

2.3.3.4. Elaborazioa. Euskara batua da, gure artean, terminologia lanetarako, hau da, euskararen garapenerako tresna; orobat, bere ibilbide estilistikorako (literatura, itzulpena,...) lagungarria. Horretarako azpimarratu behar da Euskaltzaindiaren CORPUS batzordearen zergintza, estandar edo euskara batuaren jorraketa estilistikoaz arduratzen dena. Horretan, aipa dezadan argi, Euskaltzaindiak berebiziko kezka du estandarizazio prozesuan eta garatze bidean ari direnek elkarren berri izan dezaten, ulertzen duelako behar-beharrezkoa dela bere araugintzak oihartzuna izatea lan horietan diharduten egile eta eragileen artean.

Xede horrekin abiatu zuen euskararen akademiak inkesta bat, SIADECO erakundearen bitartez, ezagutu ahal izateko zein den hartu-eman horien aukera eta horretarako ari da buru-belarri, mekanismo batzuen bidez, inplementazio eta elaborazioaren ardura dutenekin harreman estuagoak izateko eta, ahal delarik, haren proposamenak jasotzeko, estandar hori formulatzeko garaian. Horretara doaz hainbat hitzarmen, egun Euskaltzaindiarekin batera, euskararen ardura eraman eta hizkuntzaren jorraketa egiten dutenekin.

3. Egungo egoera: aurrera begira

Hona iritsita, argi dago Villasanteren hitzak berretsi behar ditudala:

Euskara bere hedadura guztian hartzen du Euskaltzaindiak, bere galtzarrean euskalki eta eskualde guztietako ordezkariak dituelarik. Ordezkaritzak ditu Euskal Herriko hiriburuetan.

*Erabakiak hartzeko baditu bere erregelak,
Arautegian garbi eta zehatz jarririk daudenak.*
(Villasante 1988: 137).

Hizkuntza baten normalkuntzan zerbait antzeko gertatzen da, bada. Hizkuntza gizartearen lokarria da. Gizarteak, bere har-emanetarako, behar du lokarri hori bateratua egon dadin. Hizkuntza, ordea, bere kasa utzirik denean, zatikatua egon ohi da; baditu mila hari-mutur airean, han hala eta hemen hola. Egoera horretan dagoen bitartean, lokarri-ofizioa betetzeko ez da gai izaten; batez ere idatzizko zereginak betetzeko. Orduan norbaitek, autoritate batek, alegia, behar ditu puntu horiek erabaki, ez itsu-itsuan, noski, literatur tradizioari, gaurko erabilerari etab. begiratzuz baizik. (Villasante 1988:138).

Hitzek, nolanahi ere, egitasmo oso bat dakarte eta egitasmo horretan Euskaltzaindiaren egungo zuzendaritzak uste du azterketa horiek egitea ezinbestekoa zaiola Euskaltzaindiari, bere *corpus planning* horretan ahalik eta artezen ibil dadin.

Horretarako jarri ditu martxan bere egitasmoak, batez ere, gure artean ohiko diren teknologia berriak erabiltzeko eta, horretarako ere, egin du zin-zinezko engaiamendua, “hizkuntzaren corpus informatikoak” garatzeko eta orobat, horiek gizarteratzeko, horrela ulertzen duelako Euskaltzaindiak agintariengandik eta gizartearengandik jaso duen agindua, euskarari dagokionean.

Horretara dator, etorri ere, erakundearen webguneari eman zaion garrantzia, aurki bistaratuko dena.

Horretan ere ulertzen du Euskaltzaindiak *corpus planning*, edo euskararen batasuna edo, hala nahi baduzue, *Iker* eta *Jagon* sailen lana. Badaki gure Akademiak, euskara hizkuntzaren corpusaren

protagonista izan behar badu, protagonismo hori egunero eskuratu behar duela, bere lana eta bere ahaleginei esker, arloak arlo.

Gure artean eztabaida sutsuak egon ziren garai batean, euskararen batasuna zela eta. Gure kasuan areagotu egin ziren haiek, euskarak gizartean duen egoeragatik. Menpekoa eta bigarren mailakoa zena, aldiz, egunotan burua jaso eta aurrera doana ikusten dugu. Arriskurik gabeko bidean ez bada ere, osasuntsuagoa bistaratzen da oraingoan euskara. Horretan lagundu zuen batasunak, horretan dugu, oraindik ere, zer landu eta zer zorroztu.

Euskara batua gizarteratzeko ahaleginetan dihardu Euskaltzaindiak, uste baitu bi ardatz horiek, akademikoa eta gizartearena, uztartu beharrekoak direla. Alperrik izango da euskara batua gizartearen atxikimendua ez badauka. Egun, aurrera doa prozesu hori eta horretan sakondu behar du akademiak.

4. *Corpus planning*: diglosiatik gobernantzara.

Esandako oro da, beraz, lagungarri euskararen *corpusa* zehazterakoan; aitzina egiteko aldiz, behar-beharrezkoa dugu, nire ustez, gure zereginetan bermatu eta txertatu bestelako kontzeptuak, hain justu ere, euskara mailako hizkuntza baten egoera sozialak noraino baldintzatzen duen bere barne-egituraren garatzea.

Ez naiz ni sartuko eztabaida antzuetan, eta *corpus* eta *status planning* horien ideologiaz ere ez dut jardungo.

Bi puntu gogoratuko ditut, *corpus planning*, euskararen batasuna, huts-hutsean egin ezina dela *status planning* egin gabe. Bigarrenez eta bide beretik, nire/gure buruari galdetuko diot XXI. mende hasieran barreiatu dagoen beste kontzeptu bategatik, alegia, hizkuntzaren

gobernantzatik.

Hartara, euskararen gobernantzan aritu behar da Euskaltzaindia, bere lanak, corpusarenak zein bestelakoak egiten dituenean.

Horrexegatik amaitu nahi dut etorkizuneko egitasmoa formulatzen, eta aipagarri izan daitekeen *dakigunetik ez dakigunera* hori, *diglosiatik gobernantzara* bihurtuko dut, euskara bera ere gutxiengoko izatetik gizartearen gobernantzan kontuan hartzeko modukoa izatera igaro dadin/igaro dezagun.

Esan gabe doa horretarako ezinbestekoa dela Europako ardatza, sorreratik bertatik ari delako Euskaltzaindia Europa mailako lanak egiten. Europar herritar saria eskuratu du euskararen akademiak aurten. Hori, aitortzarekin batera, engaiamendu berri baterako ardura ere ekarri digu euskaltzainoi eta euskalgintzan ari garen guztioi, European euskarak bere lekua izan dezan. Gaurko moduko jardunaldiak dira horretarako atea.

Landu eta zabaldu dezagun, beraz, euskararen esparrua!